

1769. Sanjoanetarako Udal Diputatuak

Edozein jai ospakizunek arau batzuk ditu antolatzeko eta aurrera eramateko. Salbuespenak ere badira, ihauterietako zenbait jokabide esaterako. Hauek alde batera utzita, aipatu ditugun arauak elkarte pribatuek hartutako erabakien ondorio izan daitezke kasu batzuetan eta era desberdinetako erakunde ofizialen babesean sortzen kezken eragina besteetan. Honekin guztia-ekin esan nahi dudana zera da: festak betidanik ihes egin nahi izan diola unean uneko inprobisazioari. Eta hain zuzen ere, herriko zaindariaren izenean egiten diren festak arauzko jokabide batzuetan oinarritzen dira.

Festen ardura izan duten giza taldeek izen desberdinak izan dituzte eta horietako bat ekarriko dut lerrootara, bitxia eta xelebrea iruditzen zaidalako: Aia auzoko Altzola auzokoa.

Elkartearen izena *Mutil Ardoa* zen eta taldeko bi arduradun gazteei *giltzero* deitzen zieten. Festetako zahagi ardoak gazteria elkartzen zen etxean gordetzen zituzten eta biltegi hartako giltzez *giltzeroak* arduratzen ziren.


Sar gaitezen gure herrian orain. Tolosan San Juanen ohorean antolatutako jaiak ez dira egun batetik bestera eratu. Orain urte batzuk, 1769an, herriko bi diputatu izendatzeko agiriak ondo asko erakusten du lehen esan duguna:

En la Sala de las Casas de Concejo y Ayuntamientos de esta N. y L. Villa de Tolosa a diecisiete de abril del año de mil setecientos sesenta y nueve, por testimonio de mi el infrascrito Escribano (...) y testigos que de yuso se diran, hallándose juntos y congregados en Regimiento cerrado a son de campana tañida conforme a ordenanza, uso y costumbre inmemorial (...).

Que en este Ayuntamiento habiéndose tratado de nombramiento de Diputados que en cada año se acostumbra hacer para la festividad de San Juan Bautista, Patrón de esta dicha Villa (...), han quedado nombrados por tales Diputados de la fiesta de San Juan Bautista dichos señores Ureta y Lizarribar (...) y es necesario a los referidos señores que como tales Diputados nombrados puedan disponer y dispongan del regocijo y fiestas del Patrón San Juan Bautista, valiéndose a este efecto los veintitrés doblones de a sesenta reales de vellón

que esta dicha Villa tiene destinados por concesión Real para la expresada Fiesta en cada año, sin que excedan de esta cantidad en manera alguna. Para todo lo cual otorgaban y otorgaron a favor de dichos señores el poder mas amplio que de derecho se requiere con todas aquellas facultades, requisitos y circunstancias que los señores otorgantes pueden y competen a esta dicha Villa (...); obligandose (...) dicha Villa a tener por bueno y firme cuanto dichos señores Ureta y Lizarribar obrasen en dicha festividad del Patrón San Juan Bautista, sin que, como se ha dicho, puedan exceder los gastos de la citada cantidad de veintitrés doblones de a sesenta reales de vellón. Y así lo otorgaron y firmaron siendo testigos (...).

Bi diputatu hoiak ez pentsa eragozpenik aurkitu ez zutenik eginbehar haietan eta Udalarekin tirabirak izan zituzten bi korriden gainean: *contra la resolución... de esta Provincia.*



1769. Sanjoanetarako Udal Diputatuak / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *San Juan Jaiak 98 Tolosa.* – Tolosa : Tolosako Udala, 1998. – [24] p. : il. ; 28 cm. – P. 5. – OC. T. 8, p. 429-430